



PORTUGALERA TARTEKO MAILA 1 ETA 2: HELBURUAK ETA EDUKIAK

HELBURUAK

Zein dira 1. kurtsoko helburu orokorrak?

Tarteko mailako 1 kurtsoan, hauek ikasten dituzte ikasleek:

- Ikasi nahi den hizkuntza gerta dakizkion egoera ia guztietan erabiltzen, dela eskola esparruan dela lanean edo aisialdian.
- Egoera horietan mezuak ulertzen, parte hartzen eta egoki hitz egiten, erregistro estandar formal edo informalean, ahoz nahiz idatziz.
- Komunikazioa eta ikaskuntza errazten duten estrategiak erabiltzen.
- Norberaren ikasketa eta hizkuntzaren erabilera aztertze eta hobetzeko tresnak erabiltzen.

Nolako komunikazio-jarduerak egingo dituzte?

Mintzaera-jarduerak izango dituzte, ohiko egoeretan eta gai orokorrean buruz, hizkuntza-errepertorio xume baina zabalarekin, oinarrizko egituraketarekin eta kohesio malgu samarrarekin.

- Ezagunak diren gaien buruz gai-esparru zabal batean elkarrizketa ez-formalak izan (esate baterako familia, zaletasun, lan, bidai, gertakizun). Berauetan informazioa trukatu da, iritzia, arazoia eta erantzunak emango dira.
- Arazo baten irtenbideari buruz edo kontu praktikoei buruz (hala nola jarduerak bat proposatzerakoan edo zerbait egiteko urratsak erabakitzerakoan) bere iritzia eman eta zalantza, baldintza, adostasuna eta erantzuna adierazi.
- Hain ohikoak ez diren egoeretan txukun konpondu, adibidez bidaietan, dendetan turismo bulegoetan, postan, banketxeetan.
- Kexua edo erreklamazioa adierazi.
- Informazio zehatz erraza errepikatu eta adierazi, komunikazio-baldintzak kontutan hartuz.
- Pertsonak, objektuak, jarduerak, prozesuak, zerbitzuak eta lekuak deskribatu.
- Gertaerak, iraganeko bizipenak eta etorkizunerako asmoak kontatu, elementuen hariari txukun jarraituz.
- Aurretik prestatutako aurkezpenak edo azalpenak egin eta gaiari lotuta agertzen diren galderei erantzun.

Idatzizko jarduerak: ezagunak diren gaien inguruan testu errazak baina egokiak eta koherenteak sortuko dira, idatzizko hizkuntzaren araubideak errespetatuz, hizkuntza-errepertorio bakuna baina zabala erabiliz, eta antolaera eta kohesio xume baina eraginkorra izanik.

- Galdetegi erantzun eta ezagunak diren gaien inguruko eskemak bete.
- Solaskide zehatzei oharrik, postalak eta gutun pertsonalak idatzi kontaktuan jartzeko, zorionak emateko, barkamena eskatzeko eta gertaerak, sentimenduak eta bizipenak azaltzeko.
- Gutun formalak idatzi, erduei jarraituz.
- Ikasten duten hizkuntzako hitzuneekin, edo interes berberak dituzten pertsonekin, Internetez, faxez edo postaz komunikatu.
- Kontakizun edo aurkezpenak, labur eta errazak baina ongi egituratuak, egin.
- Inguruko gaiak deskribatu eta berauei buruz jardun (jendea, lekuak, ikasketak, interesak).
- Txosten arrunt laburrak prestatu.

Entzumeneko ariketak, mezu eta hizketa argiekin, hizkuntza normalduan eta eguneroko gaiei buruz: lana, ikasketak, aisialdia. Zati bat edo beste errepikatzea eskatu ahal izango da.

- Berari esandakoak ulertu eta inguruan gai orokorre bati buruz edo ezagutzen duen gairen bati buruz gertatzen diren elkarrizketak, formalak eta informalak, neurri handi batean aditu, baldin eta argi artikulatzen badira eta informazio-hutsuneak mugatu ahal badira.
- Informazio erraza jaso eta ohikoak diren transakzioak kudeatu. Argibide zehatzei jarraitu.
- Kontakizunak ulertu, haria eta pasarte esanguratsuenak hauteman.
- Etxeko gaiei buruzko azalpen laburren osotasuna eta ideia nagusiak jarraitu, argi ahoskatuta eta hizkuntza estandarrean badira.
- Gai ezagunei buruzko hitzaldi labur baten puntu nagusiak hauteman eta idatziz jarri.
- Irudiaren laguntzaz informazio tekniko errazak ulertu, hala nola tresna baten erabilera edo muntaia.
- Publizitate-iragarkien edukia hauteman irudiaren laguntzaz.
- Ohikoak diren gaiei buruzko telebista-saioei jarraitu (albistegiak, erreportajeak, filmak, film laburrak). Aurreikus daitezkeen gaietan edo gai ezagunetan, pasarte laburretan funtsezko informazioa ulertu eta hauteman.

Irakurmenerako ariketak, benetako testu errazekin, testuinguru batean kokatuak, eta gai orokorre bati buruzkoak.

- Halako testuak ulertu eta berauen komunikazio-asmoa ezagutu: gutun pertsonalak eta ohikoak diren gutun formalak (informazioa edo azalpenak hartu edo eman, eskaerak egin, zerbait jaso dugula adierazi, eskerrak eman...), mezuak, mezu elektronikoak, SMSak.
- Gertaeren, sentimenduen eta nahien deskribapena ulertu lagunekin posta-harreman iraunkorra eduki ahal izateko.
- Oro har edo zehazki bere bizipenari lotutako testu labur eta errazak irakurri, eta ulermen maila txukuna lortu.
- Testu luzeetan informazio zehatza aurkitu eta iturri batzuetatik datozen informazioak bildu zeregin berezi bat egiteko.
- Emaniko web orrietatik abiatuz Interneten informazio zehatza bilatu eta aurkitu.
- Ezaguna den gai orokor bati buruzko albiste edo artikulatu erraz batean, puntu esanguratsuenak hauteman.
- Hizketaldi baten argumentu-egitura hauteman.
- Arrazoitutako testu baten konklusioak hauteman, argi artikulatuta badago.
- Norabait joateko, ariketa fisikoak egiteko, errezeta bat egiteko, jolas bat egiteko, tresna bat erabiltzeko, zerbitzu bat lortzeko, argibideei jarraitu.
- Argi idatzitako arauak ulertu (segurtasunari buruz, ikasgelako jokaera edo ardurei buruz, bidaiatzeko aholkuei buruz, etab.).

EDUKIAK

Zer funtzio ikasi behar dituzte?

1. Hizkuntzaren gizarte erabilerak

- Agurtu eta adio egin, bere burua aurkeztu, norbait aurkeztu, lagun edo ezezagun batengana jo, baimena eskatu, barkamena eskatu, eskerrak eman, zoriondu eta norbaiten arreta erakarri.
- Pertsonen buruz interesa adierazi, informazio bati esamolde eginekin erantzun egokia eman.
- Bestelako ohiko erabilerak: oparitu, gonbidatu, ongietorria eman, gertaera jakinetan desio eta sentimendu onak adierazi.
- Sentimendu hauek adierazi: adostasuna, ezadostasuna, probabilitatea, beharra edo beharrik eza, ziurtasuna, betebeharra, zerbait egiteko gaitasuna, asmoa, lehentasuna, poza/etsipena eta oroitzapenak.
- Aurreko ekintza horiei buruz galdetu.

- Laguntza eskatu eta eskaini, gonbidapenak onartu eta ukatu, iradokizunak egin, iradokizunak onartu/ukatu, eta baimena eskatu eta eman.

2. Komunikazioaren kontrola

- Laguntza eskatu: zerbait ulertu ez dela adierazi, errepikatzeko, argitzeko edo letraka esateko eskatu, hitzak letraka esan, mantsoago hitz egiteko eskatu, ezagutzen edo ulertzen ez diren hitzei edo esapideei buruz galdetu.
- Esandakoa ulertzen dela adierazi, azalpenak eskatu, parafraseatu, esandakoa zuzendu, berretsi.
- Ulertu ez duenari esandakoak azaldu edo itzuli.
- Zerbait zuzen ulertu dela adierazteko eskatu.

3. Informazio orokorra:

- Pertsoneri buruzko informazioa eman eta eskatu (adina, abizenak, egoera zibila, naziotasuna, lanbidea, telefono zenbakia, helbidea, posta elektronikoa, trebeziak, gustuak, zaletasunak).
- Ordutegi, data, otordu, leku (eskola eta bizilekua), jaki, edari, gauza, kopuru eta jardueren buruzko informazioa eman eta eskatu.
- Objektuak, pertsonak eta lekuak identifikatu.
- Zerbait norena den galdetu eta esan.
- Pertsonak, izaerak eta ezaugarri fisikoak deskribatu.
- Zerbait noiz eta non gertatzen den adierazi.
- Maiztasunez edo hizketan ari garen unean gertatzen diren ekintzei buruz hitz egin.
- Iraganeko ekintzak eta egoerak aipatu.
- Orainaldiko eta iraganeko ekintzak lotu.
- Asmoei eta proiektuei buruz jardun.
- Pertsonak, objektuak (jantziak, altzariak, eraikinak eta eraikinetako bulegoak), egoerak eta ekintzak deskribatu.
- Eguraldiari buruz hitz egin.
- Gauzak lekuan mugatu eta kokatu (objektuak ikasgelan, etxean, hirian).
- Zerbait edo norbait hurbil edo urrun dagoen adierazi.
- Iraganeko edo asmatutako gertakari bat kontatu eta hari buruz galdetu.
- Esandakoa zuzendu, atzera egin, zalantza adierazi.
- Etorkizuneko eta balizko ekintzei buruz hitz egin.
- Azalpenetan gertaerak zenbatu.
- Informazioa errepikatu eta transmititu.
- Informazioa lotu (zergatia, ondorioa, baldintzak).
- Labur azaldu (pelikulak, liburuak...).
- Hitzak eta esapideak definitu.
- Gertaera baten berri ez duzula edo baduzula adierazi.
- Iragarpenak egin eta gauzen berri eman.
- Denbora sekuentziak adierazi.
- Informazioa azaldu.

4. Iritziak eta balorazioak

- Zerbaiten berri ez dugula edo badugula adierazi eta galdetu.
- Objektuak, pertsonak, lekuak, egoerak eta ekintzak alderatu.
- Zalantza adierazi.
- Adostasuna edo ezadostasuna adierazi.
- Proposamen edo ideia baten alde ala kontra azaldu.
- Lehentasun, atsegin, gustu eta interesak azaldu eta horiei buruz galdetu.
- Iritzi edo jarduerak arrazoitu.
- Zergatiak, helburuak eta ondorioak azaldu.
- Zerbait egiteko baldintzak azaldu.
- Gertaerak baloratu (erraza, balizkoa)

5. Osasun egoerak, sentsazioak eta sentimenduak

- Sentsazio fisikoei buruzko informazioa eskatu eta eman (hotza edo beroa, logura, gosea, egarria, zaporea, ongizatea edo ezinegona).
- Hobera edo okerrera egin den adierazi.

- Aldarteari eta beronen zergatiari buruzko informazioa eman eta eskatu: gogaitasuna, gogobetetasuna edo gogobetetasun eza, miresmena, interesa, estimua, poza, etab.
- Sentimenduak adierazi: poza, pena, kezka, beldurra.
- Besteen sentimenduei behar bezala erantzun.

6. Eskaerak, argibideak eta iradokizunak

- Objektuak eta zerbitzuak eskatu eta eskaini, onartu eta ukatu.
- Aholkuak eta aginduak eman eta eskatu.
- Zerbait egiteko baimena eskatu, eman edo ukatu.
- Laguntza eskaini eta eskatu, onartu eta ukatu.
- Gonbidatu eta zerbait eskaini, onartu eta ukatu.
- Zerbait egitera bultzatu.
- Argibideak eskatu eta eman (helbideak, lekuren batera iristeko).
- Parte hartzeko eskatu.
- Zerbait egiteko asmoari, nahiarri edo erabakiari buruzko informazioa eskatu edo eman.
- Komunikazio egoera berean eskaera bat egin.
- Zerbait egiteko aukera, ezintasuna eta betebeharra adierazi.
- Debekuak adierazi.
- Jarduerak iradoki eta iradokizunei erantzun.
- Hitzorduak adostu, norbaitekin hitzordua egin.
- Telefono elkarrizketak egin (komunikazioa hasi, norbaiten galdea egin, solaskideari itxaron dezan eskatu, entzuten edo ulertzen den adierazi, agurtu, etab.).
- Norbait zerbait egitera bultzatu.

7. Diskurtsoaren antolaketa

- Norbaiti zuzendu.
- Diskurtsoa hasi eta amaitu.
- Gai bati hasiera eman.
- Elkarrizketa edo eztabaida bat antolatu: iritzia eman, adibideak eman, bere burua zuzendu, zalantza adierazi, laburbildu.
- Elkarrekintzan parte hartu: iritzia eskatu.
- Elkarrekintzan erantzun: diskurtsoari jarraitzen zaiola adierazi.
- Diskurtsoaren atalak lotu.
- Diskurtsoa kohesionatu (denboraren koherentzia, behar ez dena errepikatu gabe erreferenteari eutsi).
- Telefonoz hitz egin: erantzun, norbaiten galdea egin, solaskideari itxaron dezan eskatu, solaskideari entzuten zaituen galdetu.
- Gutun eta mezuetan formaltasun edo informaltasun egitura eta maila egokia erabili.
- Erabiltzen diren testuen/diskurtsoen arauak erabili.

Nolako testuak irakurriko dituzte?

Testuak helburu jakinak lortzeko irakurtzen dira, zeregin zehatzekin lotuta.

- Mezu pertsonal edo publikoak (SMS, posta elektronikoa, gutunak, oharrak) ohiko esamoldeekin.
- Eskola, lan edo aisialdian izena emateko, hotel batean izena emateko edo Europako Batasuneko ez den herrialde batean sartzeko galdetegiak edo inprimakiak.
- Ohiko esapideak dituzten gizarte testuak: zorientzeko, gonbidatzeko, onartzeko/ukatzeko, eskertzeko, zerbitzuak eskatzeko, barkamena eskatzeko.
- Seinaleak eta kartelak.
- Erabiltzeko argibideak eta arauak.
- Iragarki publikoak eta abisuak.
- Posterrak, publizitate-iragarkiak.
- Turismo eta merkataritza eskuliburuak eta gidak.
- Prezio-zerrendak.
- Orduetegiak.
- Fakturak, txartelak, irratitelebista/zinema/antzerki programazioak, mapak.
- Telefono gidak, agendak, aisialdi gidak, katalogoak, hiztegiak.
- Web orriak.
- Errezetak.

- Egunkariak eta atzerriko ikasleentzako aldizkariak.
- Komiki errazak.
- Abestien hitzak.
- Horoskopoak.
- Mailakatutako eleberriak.

Nolako testuak entzungo dituzte?

Testuak helburu jakinak lortzeko entzuten dira, zeregin zehatzekin lotuta.

- Elkarrizketak ez-formalak (aurrez aurre) eta elkarrekintza formalak.
- Informazio trukea.
- Arlo ezagunei loturiko mezuak eta azalpenak (informazio pertsonala, eskolak, ikasketak, lana, aisialdia eta berehalako beharrak).
- Aurkezpen, deskribapen eta kontaketa errazak eta testuinguruan egokituak.
- Erantzungailuko mezuak.
- Geltoki, aireportu, hegaldi, kontzertu eta kirol emanaldiei buruzko informazioa eta iragarki publikoak.
- Telefono-informazioa: eguraldia, zirkulazioa eta ordutegiak.
- Irrati eta telebistako informazioa zirkulazio eta eguraldiari buruz.
- Turismo informazioa (audio gidak).
- Publizitate iragarkiak (irratia, telebista, supermerkatua, etab.).

Nolako testuak sortuko dituzte?

Testuak helburu jakinak lortzeko sortzen dira, zeregin zehatzekin lotuta.

Hitz egiteko

- Eguneroko gizarte harremanak: agurrak, aurkezpenak, barkamen eskeak, eskerrak ematea eta egoera berezietakoak (laudorioak, goraipamenak, etab.).
- Zoriontzeak, gonbidapenak, nahien adierazpenak.
- Elkarrizketak ez-formalak (aurrez aurre) eta elkarrekintza formalak.
- Informazio trukea.
- Transakzioak: informazioa, ondasuna eta zerbitzua eskatu eta eman eta arazoak konpondu.
- Mezuak, deskribapenak eta kontakizunak transmititu eta erreplikatu.
- Adostasuna eta ezadostasuna adierazteko galderak eta adierazpenak.
- Emozioen adierazpena: beldurra, zoriona, ongi egotea, txarto egotea, lehentasunak, ustekabea.
- Pertsonak aurkeztu eta deskribatu: bizitokia, lantokia, egoera, zaletasunak eta interesak.
- Iraganeko eta oraingo jarduerak kontatu.
- Asmo eta helburuak azaldu.
- Intereseko gaiari buruz aurretiaz prestatutako aurkezpena.
- Arrazoitze errazak.

Idazteko

- Esperientziak, gertaerak, istorioak, gertaera errealak eta asmatutakoak kontatu.
- Pertsonak, objektuak, jarduerak, prozesuak, zerbitzuak eta lekuak deskribatu.
- Planak eta proiektuak aurkeztu.
- Iritzia eta arrazoibidea adierazteko testu laburrak.
- Biografiak.
- Curriculum vitaeak.
- Errezetak eta argibide errazak.
- Konpromisoak eta arauak.
- Lan eskaerak.

Zer gai landuko dituzte?

- Bere burua identifikatu.
- Etxebizitza, etxea, hiria eta ingurua.

- Eguneroko bizimoduko jarduerak.
- Denbora libre eta aisialdia.
- Bidaiak
- Giza eta gizarte harremanak.
- Osasuna eta zainketa fisikoa.
- Heziketa
- Erosketak eta merkataritza jarduerak
- Elikadura
- Ondasunak eta zerbitzuak
- Hizkuntza eta komunikazioa
- Klima, atmosferaren gorabeherak eta ingurumena
- Zientzia eta teknologia

Zein gaitasun eskuratuko dituzte komunikazio-jarduerak burutzen jakiteko?

Gaitasun pragmatikoak

Egoerari egokitu: erregistroa.

- Egoera eta testuinguruari erreparatu behar zaie mezua ulertu eta ekoizteko.
- Mintzakidearekin behar den formaltasun maila (publikoa edo pertsonala) antzeman eta erabili (trataera, keinuak, jarrera) estandarraren barruan.
- Ohikoak diren egoeretan, ikasi nahi den kultura-usadioen arabera erantzun eta esku hartu.
- Behar den informazioa eskaintzeko, elkarbanatutako informazioa kontutan hartu

Ideen koherentzia eta berauen antolaketa testu motaren arabera.

- Aurrean ditugun edo ekoizten ditugun testuen antolaketa, formatu eta ezaugarriei egokitu.
- Testuen kokapen grafikoari arreta egin beraren antolaketa hautemateko edo irudikatzeko, ezagutzeko eta atalak, zerrendapena eta azpimarratuak adierazteko,
- Ideiak koherentziaz antolatu (denbora, espazioa eta logika).
- Komunikazio-asmoa burutzeko informazio aski eta egokia eskaini.

Erreferentziako eta loturako baliabideak. Hitz-jarioa:

- Diskurtso-markagailuak eta intonazio egokia erabili diskurtsoaren aitzinatzea adierazteko.
- Denborazko eta tokiko esamoldeak erabili mezua kokatzeko.
- Behar ez diren errepikapenak saihestsi, ordezeko baliabideak erabiliz (elipsiak, izenordainak, adberbioak).
- Lokailuak eta puntuazio-markak malgutasun handi samarrarekin erabili.
- Zerbait intonazioaz edo marka grafikoaz indartu.
- Testuan zehar denbora-koherentzia gorde.
- Mailari dagozkion testuak erraz ulertzeko entrenatu, horretarako estrategia egokiak erabiliz.

Gaitasun soziolinguistikoa

Hizkuntza erabiltzeak berez dakar hizkuntza horren dimentsio soziala ezagutzea, ulertzea eta indarrean jartzea. Alor soziokulturalak (adibidez ordutegiek, ohiturek, jaiak, aisialdirako jardunek, errituek, gizarte egiturak, historiak...) hainbat balio, sinesmen eta jokaera gordetzen du bere baitan, eta azpian errealitatea barneratzeko era ezberdinak agertzen dira. Alor hau barneratzeak, kultura arteko gaitasun aberasgarria sortzeaz gain, ikasi nahi den hizkuntzako herrialdean eta bertako jendearekin egoki jokatzeko laguntzen du.

Gizarte harremana: formaltasuna/formaltasun eza, urruntasuna/hurbiltasuna, hierarkia

- Egoera zehatzari erantzungo dioten gizarte-jokabide egokiak erabiltzea.
- Kulturari dagokion jarrera eta hizkuntza erabili pertsona ezezagunen aurrean (jarrera, begirada, tartea, eguraldiari buruzko galderak, isiltasuna).
- Norberaren kulturako keinuetatik ezberdinak direnak ezagutu eta erabiltzen hasi (eskua eman, musuak, tarreak, begietara begiratu ala ez).

Hizkuntza estandarra eta aldaerak.

- Egoera formala eta ez-formala bereizten jakin eta jokamoldea kultura horretako ohituretara moldatu.
- Erabiltzen diren iturrietan ahozko eta idatzizko hizkuntzen arteko ezberdintasuna ezagutu.

Kultura-erreferenteak.

- Ohikoa den interferentzia baten esanahi bikoitza edo zentzu itsusia ezagutu.
- Eguraldi-adierazpenen balio zehatz edo erlatiboa ezagutu.
- Beste kulturatan tabuak edo iraingarriak izan daitezkeen alde eta adierazgarri ohikoenak ezagutu.
- Ohiko esamolde eta esapide batzuk testuinguruan kokatu eta esanahia ulertu.
- Oso ohikoak diren esamolde batzuen zentzu bikoitza ezagutu.

Hizkuntza-gaitasuna

Fonologiako, ortografiako eta gramatikako gaitasunak komunikatu ahal izateko bitartekoak dira eta hizkuntza erabiliz barneratzen dira.

GRAMATIKA

Perpaua

- Perpau bakunak.
 - Osagaiak (subjektua, predikatua, determinatzailea, atributua, bokatiboa, areagotze-adierazpenak...), kokapena (ordena zuzena edo alderantzizkoa) eta komunztadura-fenomenoak (subjektua eta predikatua). Oinarrizko Mailan azaldutako edukiak berrikusi eta finkatu.
 - Perpau motak mintzakidearen jarreraren arabera. Oinarrizko Mailan azaldutako edukiak berrikusi eta finkatu.
 - Ezagutarazleak: baiezkoak (A inveja envenena) edo ezezkoak (Não chegou cedo).
 - Harridurazkoak (Que exagero!).
 - Aukerazkoak (Isso pode ser verdade).
 - Zalantzaizkoak (Talvez volte amanhã).
 - Galdetzaileak: orokorrak (Querem comer conosco?) edo partzialak (Que vão comer amanhã?).
 - Desideratiboak (Quem me dera estar na praia).
 - Aginterazkoak (Dispam os casacos, meninos).
 - Perpau motak predikatuaren izaera gramatikalaren arabera. Oinarrizko Mailan azaldutako edukiak berrikusi eta finkatu.
 - Kopulatiboak (A Terra é redonda).
 - Iragankorrak (Eu conheço os seus filhos).
 - Iraganezinak (A Maria saiu de casa às 8h).
 - Pasiboak: “ser” aditz laguntzailearekin (A Câmara foi cercada pela polícia), “estar” aditz laguntzailearekin (O relatório está concluído) eta “ficar” aditz laguntzailearekin (O Hugo ficou constipado); “se” partikula pasibatzailea (Aceitam-se cartões de crédito).
 - Bihurkariak (Nós lavamo-nos).
 - Elkarkariak (Eles amam-se).
 - Inpertsionalak (Já anoitece).
- Perpau konposatua.
 - Perpau koordinatuak:
 - Koordinazio asindetikoa (Os miúdos correm, brincam, saltam).

- Koordinazio sindetikoa:
 - Perpaus kopulatiboak (A Teresa chora e ri).
 - Perpaus disjuntiboak (Ou passas ou chumbas).
 - Perpaus adbertsatiboak (Ele bem se esforçou, mas não teve sucesso).
 - Perpaus konklusiboak (Sou humano, portanto posso errar).
 - Perpaus esplikatiboak (Vamos beber, que estou cheia de sede).
- Menpeko perpausak:
 - Perpaus substantiboak:
 - Erlatibo substantiboak (Apenas pagamos quanto consumirmos).
 - Barneratzaileak (É possível que amanhã saia o sol).
 - Zeharkako harridurazkoak (Repara como ela joga).
 - Zeharkako galderazkoak (Quero saber onde estudaste português).
 - Infinitiboak (Penso seres tu o responsável pelo acidente).
 - Perpaus adjektiboak:
 - Erlatibo esplikatzaileak (O Dr. Gomes, que é um professor exigente, preocupa-se com os progressos dos seus alunos). Gomes, que é um professor exigente, preocupa-se com os progressos dos seus alunos).
 - Erlatibo mugatzaileak (O homem que é prudente não gasta mais do que ganha)
 - Adberbiozko perpausak:
 - Konjuntziozko perpausak:
 - Kausalak (Tem muita fome porque não come há dias).
 - Konparatiboak (Aconteceu tudo como pensáramos).
 - Kontzesiboak (Embora conheçamos bem Lisboa, ainda temos lugares novos para descobrir).
 - Baldintzazkoak (Se não comeres, não vês o filme).
 - Ondoriozkoak (Tanto estudou, que ficou com problemas mentais).
 - Xedezkoak (Não te deites tarde, para partirmos bem cedo).
 - Denborazkoak:
 - Aldiberekotasuna (Quando era pequeno passava as férias em Aveiro).
 - Aurrekotasuna (Antes de irem ao arraial, descansem um bocadinho).
 - Atzekotasuna (Depois de terem deixado a bagagem no hotel, dirigiram-se a um restaurante).
 - Perpaus gerundiboak (Andando eu no centro de Elvas, eles vieram ter comigo).
 - Partizipiozko perpausak (Dito isto, ficou tranquilo).

- Diskurtso zuzena eta zeharkakoa. Oinarrizko Mailan azaldutako edukiak berrikusi eta finkatu eta subjuntiboko formen aldaketak gehitu.

Izenak eta adjektiboak

- Izena:
 - Klaseak, generoa eta numeroa. Oinarrizko Mailan azaldutako edukiak berrikusi eta finkatu eta kasu berezi berriak ezagutu: generoa (frei – sóror o soror) eta numeroa (papelzinho – papeizinhos).
- Adjektiboa:
 - Klaseak, generoa eta numeroa. Oinarrizko mailan azaldutako edukiak berrikusi eta finkatu eta kasu berezi berriak ezagutu: generoa (uma menina surda-muda) eta numeroa (canários amarelo-ouro). Adjektibo patronimiko gehiago ezagutu (conimbricense o coimbrão).
- Adjektiboen mailaketa:
 - Gradua: positiboa, konparaziokoa (nagusitasuna, berdintasuna eta gutxiagotasuna) eta superlatiboa (absolutua eta erlatiboa). Oinarrizko Mailan azaldu bezala, nola sortzen den berrikusi eta finkatu eta forma berriak aurkeztu (superlativo de miúdo – minutíssimo).

- Modifikatzaileak:
 - Atzizki garrantzitsuenak -handigarriak (-ão, -aço, -alhão...) eta txikigarriak (-inho, -ito, -icho...)- eta artizki garrantzitsuenak (-z-) aurkeztu.
- Komunztadurak: Izenaren eta adjektiboaren artean, determinatzaileen eta izenaren artean... Oinarrizko Mailan azaldutako edukiak berrikusi eta finkatu.

Determinatzaileak

- Artikuluak: erakusleak, edutezkoak, mugagabeak, zenbatzaileak, harridurazkoak, galdetzaileak eta erlatiboak. Artikuluaren formak berrikusi eta finkatu, elkarketa posibleak preposizioekin (àquela) edo beste elementuren batzuekin (estoutro), balioak eta erabilerak, guztiak Oinarrizko Mailan ikusitakoak. Bereziki azpimarratuko da herrialde, eskualde, hiri edo herrien izenetan artikulua agertzen den ala ez (A Eslováquia, Amesterdão...).

Izenordainak

- Izenordainak. Izenordainen forma, balio eta erabilera guztiak berrikusi eta finkatuko dira, eta bereziki aztertuko dira objektu zuzeneko eta zeharkako objektuko izenordain atonoen kontrakzioetatik eratortzen diren formak (mo, lho, no-lo...), guztiak Oinarrizko Mailan azaldutakoak.
- Izenordain atonua aditzaren arabera non kokatzen den berrikusi eta finkatuko da, Oinarrizko Mailan azaldu bezala.
 - Proklisia (Guardei-lhas no cesto).
 - Enklisia (Não vo-las guardei no cesto).
 - Mesoklisia (Guardá-las-ei no cesto).
- Oinarrizko Mailan aztertu diren trataerak berrikusi eta finkatu eta trataera berriak aurkeztu (Vossa Eminência, Vossa Majestade...).

Aditzak

- Oinarrizko Mailan aditzari buruz aztertu diren eduki guztiak berrikusi eta finkatu.
- Beste aditz batzuk, aditz-denbora batzuk, konjugazioaren forma berezi batzuk, aditz mota batzuk... erantsi
 - Indikatiboko orainaldiko etorkizun konposatua. Eraketa, balioak eta erabilerak.
 - Indikatiboko lehenaldi bakuneko etorkizuna. Eraketa, balioak eta erabilerak. Indikatiboko burutugabea haren ordez jartzea.
 - Indikatiboko lehenaldiko etorkizun konposatua. Eraketa, balioak eta erabilerak.
 - Subjuntiboko oraina. Eraketa, balioa eta erabilerak, bereziki perpaus disjuntiboetan eta perpaus substantiboetan.
 - Subjuntiboaren lehenaldi burutugabea. Eraketa, balioa eta erabilerak, bereziki perpaus disjuntiboetan eta perpaus substantiboetan.
 - Subjuntiboko lehenaldi burutua. Eraketa, balioak eta erabilerak.
 - Subjuntiboko lehenaldi pluskuanperfektua. Eraketa, balioak eta erabilerak.
 - Subjuntiboko etorkizun bakuna. Eraketa, balioak eta erabilerak, bereziki perpaus erlatiboetan.
 - Subjuntiboko etorkizun konposatua. Eraketa, balioak eta erabilerak, bereziki perpaus erlatiboetan.
 - Infinitibo pertsonal bakuna. Eraketa, balioak eta erabilerak. Oinarrizko Mailan aztertutako edukiak berrikusi eta finkatu eta aditz-forma honen beste erabilera batzuk aipatu, bereziki perpaus substantiboetan.
 - Infinitibo pertsonal konposatua. Eraketa, balioak eta erabilerak.

- Konjugazio perifrastikoa. Oinarrizko Mailan aztertu diren egitura perifrastikoen balio eta formak berrikusi eta finkatu eta beste batzuk erantsi (andar a + infinitiboa; ir + gerundioa; ir a / vir a + infinitiboa; vir a + infinitiboa; ficar a + infinitiboa; costumar (indikativoko presentea edo burutugabea) + infinitiboa; acabar por + infinitiboa; ir (lehenaldi burutugabea) + gerundio / a + infinitiboa; estar para + infinitiboa; estar por + infinitiboa; ter a + infinitiboa; ter para + infinitiboa)
- Konjugazio pronominala eta bihurkaria. Eraketa, balioak eta erabilerak. Oinarrizko Mailan azaldutako edukiak berrikusi eta finkatu.
- Aditz inpersonalak eta adierazpen inpersonalak (subjuntiboko orainaldia, infinitibo pertsonala...) eta aditz pertsonabakarrak eta defektiboak. Eraketa, balioak eta erabilerak. Oinarrizko Mailan azaldutako edukiak berrikusi eta finkatu eta forma hauen berezitasun batzuen aipamena egin.
- Aditz batzuen preposiziozko erregimena (contribuir, dispor, ter gosto, ter tendência, perseverar, ter coragem...).
- Aditzaren forma ez-pertsonalak (infinitiboa, gerundioa eta partizipioa) Eraketa, balioak eta erabilerak. Oinarrizko Mailan azaldutako edukiak berrikusi eta finkatu eta forma hauen berezitasun batzuren aipamena egin.

Adberbioak

- Denborazko, lekuzko, zenbatezko, moduzko, baieztapenezko, ukapenezko, zalantzazko, bazterketazko, barne hartzezko, ordenazko eta galderazko adberbio eta adberbio-lokuzioak. Oinarrizko Mailan azaldutako edukiak berrikusi eta finkatu eta beste forma batzuk erantsi (eis, assaz, às avessas, à toa...).
- Adberbioaren mailaketa: positiboa, konparatiboa eta superlatiboa. Oinarrizko Mailan azaldutako edukiak berrikusi eta finkatu.

Lokailuak eta beste partikula batzuk

- Preposizioak eta lokuzio preposizionalak. Oinarrizko Mailan azaldutako edukiak berrikusi eta finkatu eta beste forma batzuk erantsi (a respeito de, em redor de...).
- Konjuntzioak eta lokuzio konjuntiboak. Oinarrizko Mailan azaldutako edukiak berrikusi eta finkatu eta beste forma batzuk erantsi.
 - Koordinatuak:
 - Kopulatioak (e, nem, também, não só...mas também, não só...como também, tanto...como...).
 - Disjuntiboak (ou, ou...ou, já...já, nem...nem, ora...ora, quer...quer, seja...seja...).
 - Adbertsatiboak (mas, porém, todavia, contudo, apesar disso, no entanto, ainda assim, não obstante, de outra sorte...).
 - Konklusiboak (logo, pois, portanto, assim, por conseguinte, por consequência, por isso...).
 - Esplikatzaileak (pois, porquanto, que...).
 - Menpekoak:
 - Kausazkoak (porque, pois, porquanto, como, já que...).
 - Konparatiboak (como, segundo, conforme...).
 - Kontzesiboak (embora, conquanto, ainda que...).
 - Baldintzazkoak (se, caso, a não ser que...).
 - Ondoriozkoak (que, antecedido de tal, tão, tanto ou tamanho...).
 - Xedezkoak (que...).
 - Denborazkoak (quando, enquanto, apenas, mal...).
- Interjekzioak. Oinarrizko Mailan azaldutako edukiak berrikusi eta finkatu eta beste forma batzuk erantsi (Avante!, Ih!...).

- Hitz betegarriak (pá, não é...).

FONOLOGIA ETA ORTOGRAFIA

- Kontsonanteen eta bokalen soinu eta fonemak. Elementu isolatuak, inguruak eta beste prozesu fonologiko batzuek (gortzea, ozen bihurtzea, asimilazioa, elisioa, sabaikaritzea, sudurkaritzea, epentesia, bokalen txandaketa...) eragindako aldaketak. Oinarrizko Mailan azaldutako edukiak berrikusi eta zailenak finkatu (ahozko bokalak: tonikoak/atonoak, itxiak/irekiak, diptongoak, triptongoak eta hiatoak; bokal sudurkariak: tonikoak/atonoak, diptongoak eta triptongoak // kontsonante frikatiboak, albokariak, eta dardarkariak).
- Intonazioa Oinarrizko Mailan azaldutako edukiak berrikusi eta finkatu.
- Fonemen eta soinuen irudikapen grafikoa. Oinarrizko Mailan azaldutako edukiak berrikusi eta finkatu, eta eduki berri batzuk aurkeztu: hitz homofonoak (bucho –animalien urdaila/buxo – landarea), homografoak (rúpia –azaleko zauria/rupia –txanpona) eta paronimoak (esterno – bularreko hezurra/externo –kanpoko).
- Atzerriko hitzen ortografia (guiché, uisque...).
- Karaktereak aldaera guztietan (hizki larria/xehea, etzana, lodia...). Oinarrizko Mailan azaldutako edukiak berrikusi eta finkatu.
- Ortografia-zeinuak (azentuak, tilet sudurkaria, ze hautsia, dieresia, apostrofea, marratxo...).
- Oinarrizko Mailan azaldutako edukiak berrikusi eta finkatu.
- Ohikoak diren ikurrak, laburdurak, siglak edo akronimoak. Oinarrizko Mailan azaldutako edukiak berrikusi eta finkatu eta beste forma batzuk erantsi (c/c, P.F., P.J...).
- Puntuazioa. Oinarrizko Mailan azaldutako edukiak berrikusi eta finkatu.
- Silaba eta beraren zatiketa. Oinarrizko Mailan azaldutako edukiak berrikusi eta finkatu.

Nolako estrategiak erabiliko dituzte komunikazio-jarduerak gauzatzeko?

Hemen estrategia esaten dugunean, hiztunak bere baliabide guztiak erabiliz eraginkortasunez komunikatzeko indarrean jartzen dituen adimen-prozedura guztiak aipatzen ditugu.

Jarduera planifikatzeko

- Entzun edo irakurriko dena aurreikusteko norberaren ezagutzak eta eskarmentua aktibatzen dira.
- Edukia zein forma prestatzeko, komunikazio-egoera testuinguruan kokatzen da eta mintzakidea kontutan hartzen da.
- Mezua planifikatu eta igorri nahi diren ideiak nola adierazi neurtzen da.
- Eskura dauden baliabideak neurtu eta mezua berregokitzen da, edo beharrezkoak diren baliabideak aurkitzen dira.
- Puntu garrantzitsuenak komunikatzeko era aurreikusi eta entseatu egiten da.
- Mintzakideek dakitena edo ez dakitena aintzat hartzen da.
- Ohiko esaldiak buruz ikasten dira.

Jarduera egiteko

- Lehenik, entzun edo irakurtzen denaren asmoa eta esanahi orokorra antzematen saiatzen da.
- Testua bizkor aztertzen da nahi dena horixe ote den ikusteko eta datu zehatzak mugatzen dira, asmoa horixe izatekotan.

- Edukiaren inferentziak egitea ahalbidetuko duten hitz-gakoak hautemateko arreta jartzen da.
- Apurka apurka testuaren ideiak aurkitzen dira, hipotesiak egin eta kontrastatuz.
- Gai ezaguneri dagokienez, hitz ezezagunen bidez esaldien esanahia inferitzen da.
- Ulermena errazteko elementu ezberdinei -linguistikoak zein ez linguistikoak (irudiak, formatua, intonazioa, keinua, tonua)- arreta eskaintzen zaie.
- Testuinguruaren laguntzaz ulermenaren hutsak betetzen saiatzen da.
- Hipotesiak kontrastatzeko berriro irakurri edo entzuten da.
- Bai ikasten denean eta bai irakurri edo entzuten denean, oharrak idazten dira, azpimarratu egiten da edo eskema bat betetzen da.
- Zalantzak edo ezezagunak diren hitzen esanahia asmatzen saiatzen da:
 - Egoeraren, irudien, eta norberaren ezagutza orokorren eta beste hizkuntzen ezagutzaren laguntzaz.
 - Testuaren edo esaldiaren zentzu orokorraren laguntzaz.
 - Testuinguruaren laguntzaz (erreduntziak, argibideak, adibideak, sinonimoak erabiliz...).
 - Beste hizkuntzen ezagutzaren laguntzaz.
 - Gramatikako eta hitzetako gakoak laguntzaz (hitz-familiak, gramatika-kategoriak, kokapena, etab.).
 - Lexikoa eta ohiko esamoldeak ama-hizkuntzakoekin alderatzen dira, batik bat interferentziak edo sasiadiskideak eman daitezkeenean.
- Estrategia pertsonalak erabiltzen dira (ezagutzen ez diren hitz-gakoak azpimarratu edo idatzi eta beraietara bueltatu, hitz-gakoak zerrendak egin, lokailuena...).
- Hitz ezezagunen esanahiaren inguruko hipotesiak egin ondoren hiztegia erabiltzen da.
- Esamolde egokiak erabiltzen dira ohartarazteko, hitza hartu eta emateko, elkarriketa hasteko, segitzeko, amaitzeko.
- Errutinak erabiltzen dira, kodea aldatu eta ohartarazi egiten da, beste hizkuntza bateko hitzak egokitu egiten dira, parafraseatu egiten da, beste modu batera adierazten da.
- Zailtasunak gizarte estrategien bidez saihesten dira: mintzakideari laguntza eskatzen zaio, hobeki ez hitz egiteagatik edo ez idazteagatik barkamena eskatzen da, aurpegi-adierazpenak erabiltzen dira, gorputzaren keinuez edo irudien bidez adierazten da.

Jarduera aztertu eta zuzentzeko

- Ondo ulertu ote den kontrastatu eta baieztatzen da.
- Ulertu ez dena adierazten da.
- Mezua era ezberdinez argitzen da edo argi dezaten eskatzen da.
- Hitz eta esamolde berriak gogoan gordetzen dira eta egoki erabiltzen diren jakiteko erabili egiten dira.
- Mintzakideen laguntzaz gaizki-ulertuak zuzendu egiten dira.
- Erabili den moldea zalantzak bada baieztapena eskatzen da.
- Komunikazioa eteten denean taktika berria erabiltzen da.
- Hutsegiteen arrazoiak aztertu eta gainditzeko erak saiatzen dira.
- Elkarri ulertu zaiola baieztatu egiten da.

HELBURUAK

Zein dira 2. kurtsoko helburuak?

Tarteko mailako 2 kurtsuan, hauek ikasten dituzte ikasleek:

- Ikasi den hizkuntza eskolan, lanean zein beste egoera askotan erabiltzen, aurrez aurre zein modu birtualean, komunikatzeko tresna eta adierazpen pertsonal gisa, gai zehatz eta abstraktu zein kultur gaiei buruz.
- Egoera horietan mezuak ulertzen, parte hartzen eta egoki hitz egiten, malgutasun dezentearekin, erregistro estandar formal edo informalean, ahoz nahiz idatziz.
- Ohiko egoerekin eta lanarekin loturiko alderdi soziokulturalen ezagutza handitzen, eta egoera horietan gizarte formula, keinu, erregistro eta tratamendu egokiak erabiltzen.
- Praktika funtzional eta formalaren bitartez eta estrategia eraginkorrenak erabiliz, beharrezko hizkuntza baliabideak barneratzen.

Zer nolako komunikazio-jarduerak burutuko dituzte?

Mintzameneko jarduerak

Egoera eta gai sorta zabalean egoki aritu, segurtasun eta hitz-jario maila dezentearekin, eraketa eta kohesio maila apal baina eraginkorrez, eta argi ahoskatuz atzerritarraren doinuak izan arren.

Elkarrizketa

- Gizarte harremanak izan eta aurretik prestatu gabeko elkarrizketei ekin, egunerokoan agertzen diren gaiei buruzko informazioa, iritziak edo argibideak trukatzuz eta arazoei irtenbidea emanez.
- Segurtasun dezenteaz gai orokorrei buruzko elkarrizketetan esku hartu, eta baita ez hain ohikoak diren gaietan ere, interes pertsonalari eta norberaren espezialitateari lotuta daudenean.
- Arazo baten arazoiak azaldu, jarraibideaz eztabaidatu, aukerak alderatu eta kontrastatu.
- Ustekabea, zoriona, tristezia, interesa eta axolagabetasuna bezalako sentimenduei erantzun, eta adierazten jakin.
- Gizarte harremanetan ohiko trataera formulak erabili, sarritan ematen diren egoera sorta zabalean.

Eztabaida formalak

- Iritziak, asmoak, adostasunak eta ezadostasunak adierazi eta defendatu, azalpen, argudio eta iruzkin egokiak eskainiz.

Negoziatioak

- Hartu-eman gehienei irtenbide egokia eman (ikasten den hizkuntzako herrialde baterako bidaia batean, ostatua hartzerakoan, inskripzio bat egiterakoan edo agintariekin aritzerakoan).
- Hain ohikoak ez diren egoerak zailtasunik gabe konpondu, dendetan edo zerbitzu publikoetan: adibidez, gustuko utzi ez gaituen erosketa itzultzea.
- Arazo edo zerbitzuren bat negoziatu eta konpontzeko ezagutza, betebeharra, aukera, adostasuna eta beraien aurkakoak adierazi.

Informazio trukea

- Konfiantza dezenteaz, informazio zehatza lortu, trukatu, egiaztatu eta baieztatu, baita gaia hain ohikoa ez denean, edo norberaren espezialitatekoa denean.

- Gauzaren bat nola egiten den adierazi, jarraibide zehatzak emanez.
- Kontakizun, artikulua, hitzaldi, eztabaida, elkarrizketa edo dokumental motzak laburbildu eta beraiei buruzko iritzia eman, eta xehetasunak ematea eskatzen duten galderei erantzun.

Deskribapena eta kontakizuna

- Bizipenak xehetasunez eta erraztasun dezentez kontatu, egoerak, sentimenduak eta erreakzioak deskribatuz eta alderatuz.
- Ustekabeko gertakizunak zehatz kontatu, hala nola istripu bat.
- Ametsak, itxaropenak eta gogoak, benetako edo asmatutako gertaerak azaldu.

Jendaurreko aurkezpen eta arrazoiketa.

- Labur eta aurretik prestatuz, norberaren espezialitateko gai bat aurkeztu, argitasun eta zehaztasun dezentez, eta ondorengo galderei erantzun.
- Datuak/ideiak lotu eta atal garrantzitsuak azpimarratu.
- Gaia hasi, aldatu eta amaitu.

Idazmeneko jarduerak

Testuek hizkuntza elementu barietate dezente eta eraketa eta kohesio bakun baina eraginkorra edukiko dute eta, gainera, egoera komunikatiboari egokituko zaizkio.

- Solaskide zehatzentzako mezuak idatzi ohikoak diren gizarte harreman eta usadioak burutzeko, eta baita informazioa emateko edo bizipenak, interesak, erreakzioak, sentimenduak eta gertaerak deskribatzeko ere, xehetasun nahikoarekin eta garrantzitsuenak diren aldeak azpimarratuz.
- Gutun pertsonalak idatzi gai zehatz, abstraktu edo kulturalen inguruko ideiak emateko, informazio egiaztatu eta arazoen gainean galdetu edo xehetasun dezenterekin azaldu.
- Zerbitzuekin lotutako jendeari oharrak idatzi informazioa emanez edo berehalako informazioa eskatuz, alde garrantzitsuenak azpimarratuz.
- Gutun formal konbentzionalak idatzi informazio bat edo zerbitzu bat eskatzeko, arazoren bat aurkezteko, kexua aurkezteko edo eskerrak emateko.
- Txosten konbentzional laburrak idatzi, ohiko gertaerei buruz eta ekintza batzuen arrazoiari buruz.
- Segurtasun dezentez, gertaera zehatzei buruzko iritzia eman, ohiko edo ezohiko gaiak izan, edo norberaren espezialitatekoak izan.
- Argibideak, lan eskaerak, curriculum vitaeak, aurkezpeneko iragarki laburrak edo informazio transmisioa idatzi.
- Norberaren bizipenak kontatu, sentimenduak eta erreakzioak azalduz, testu erraz eta egituratuetan.
- Benetako gertakizunak edo asmatutakoak azaldu. Historia bat kontatu.
- Norberaren intereseko gai buruzko saio bakunak idatzi, iritziak emanez.

Entzumenerako jarduerak

Elkarrekintza eta mezuak, baita luzeak ere, gai orokorrei buruz, baita ezohiko egoeratan ere, argi artikulatuak, erregistro estandarrean eta informazioaren hutsuneak kontrolatzeko aukerarekin.

- Elkarrizketa bati jarraitu eta gizarte harremanetan berari zuzentzen zaizkionean egoki erantzun, baita ezohiko egoeratan ere, baldin eta argitzeko eta errepikatzeke eskatu ahal badu.
- Gai orokor bati buruz edo norberaren espezialitateko gai bati buruzko eztabaida baten puntu nagusiei jarraitu eta esaten dena ia osorik ulertu, baldin eta hizlariek ondo ahoskatzen badute eta hizkuntza argia erabiltzen badute.
- Eztabaida batean gaia aldatu dela konturatu eta iritzi-kontrastea antzeman.
- Pertsonak, objektuak, jarduerak, zerbitzuak, informazioak eta lekuak ulertu.
- Argibide zehatzei jarraitu, baldin eta testuingurua badute.
- Informazio erraza jaso eta ezohikoak diren transakzioak kudeatu.
- Elkarrizketetan, informazioa egiaztatu eta baieztatu nahiz eta aldika esandakoa errepikatzeke eskatu behar izan, mintzakidearen erantzuna luzea edo bizkorra bada.

- Gai orokor edo norberaren espezialitateari buruzko berbaldi, aurkezpen, deskribapen eta kontakizun laburrak ulertu baldin eta ondo egituratuta badaude.
- Hitzaldi batean zehar ohar zehatzak idatzi.
- Informazio tekniko errazak ulertu, adibidez tresna arrunten erabilera.
- Argibide zehatzei jarraitu.
- Publizitate iragarpenen esanahia antzeman.
- Testuingurua duten gaietan, megafoniaz emaniko iragarki eta mezuak ulertu.
- Telebista saio gehienak ulertu (elkarrizketa, hitzaldi laburrak eta albistegiak) baldin eta interes pertsonaleko gaiak badira eta argi eta astiro samar artikulatuta badaude.
